

miaka5

STM | IKERKETA
KOADERNOAK

San Telmo Museoa

SOROSPEN ETA BIDAIA ONEKO AMA BIRJINA

IKERKETA ETA ZAHARBERRITZEA

David Zapirain. Ereiten Kultur Zerbitzuak
Artez Zaharberritzea / Restauración



miaka5

IKERKETA KOADERNOAK

STM

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia
T (00 34) 943 48 15 80

www.santelmomuseoa.eus
[@santelmomuseoa](https://www.instagram.com/santelmomuseoa)





SOROSPEN ETA BIDAIA ONEKO AMA BIRJINA

IKERKETA ETA ZAHARBERRITZEA

David Zapirain. Ereiten Kultur Zerbitzuak
Artez Zaharberritzea / Restauración

IKERKETA

Oinarrizko ideiak: ikerketaren abiapuntua	4
Ikerketaren metodoa	5
Emaiza	6
Ondorioak	9
Eranskinak	10

ZAHARBERRITZEA

FITXA TEKNIKOA	13
DESKRIBAPEN BISUALA	14
DESKRIBAPEN IKONOGRAFIKOA ETA ERRESEINA HISTORIKOA	16
Miserikordiako Ama Birjina	16
Ama Birjinaren Mantu babeslea	17
KONTSERBAZIO-EGOERA	18
Euskarria	19
Aparailua, prestaketa	20
Pintura-mintza	21
Aurreko esku-hartzeak	23
HASIERAKO ARGAZKIAK	25
KONTSERBAZIO-EGOERAREN MAPAK	26
Polikromian dauden aldaketak	26
Aurreko esku-hartzeak	28
Euskarriaren kontserbazio-egoera	30
ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK	32
Helburuak	32
Irizpideak	32
ZAHARBERRITZE-PROZESUA	33
Jarraipena eta dokumentazioa	33
Argazki-dokumentazioa	33
Garbiketa mekanikoa	33
Polikromia finkatzea	34
Aurreko esku-hartzeetako iztukuak mekanikoki kentzea	36
Jatorrizkoak ez diren metalezko elementuak kentzea	37
Euskarria finkatzea	38
Jatorrizko metalen tratamendua	39
Elementu solteak itsastea	39
Bolumetria berreraikitzea	39
Babes-geruza kentzea	40
Urez garbitzea	41
Birpintatzeak kentzea	42
Berrintegrazio kromatikoa	42
Berrintegrazioa berniz-pigmentuekin	43
Idulkian egindako tratamendua	44
Azken babesa	45
AZKEN ARGAZKIAK	46
XEHETASUNEN ARGAZKIAK, ZAHARBERRITZEAREN AURRETIK ETA ONDOREN	48
BIBLIOGRAFIA	62
ESKU-HARTZEAREN ETA IKERKETAREN DATUAK	62

OINARRIZKO IDEIAK: IKERKETAREN ABIAPUNTUA

San Telmoren eskaeraz Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje (NSSBV) deritzan Donostiako Ama Birjinaren adokazioaren ingurukoak ikertu ditugu. Ikerketaren helburua adokazio horren aldaera ulertzea da. Izan ere, adokazio hau guztiz ahaztuta dago egun. Beraz, ikerketa honi esker, Ama Birjinaren taillari museoan testu inguru historikoa eman nahi dio, bertan gordetzen da eta.

Ikerketaren prestaketan helburua betetzeko zailtasunak aztertu eta azaldu ditugu; izan ere, zaila da oso horrelako datuak topatzea. Batetik, suteen erruz hirian agiri historiko gehienak galdu direlako; bestetik, adokazio edo gurtzaren inguruan egun daukagun jakin behar hau guztiz gaurkoa delako; ondorioz, iraganean inolako espediente berezirik sortu ez duela uste dugu.

Alabaina, Ama Birjina honen gogoia egun zeharo alboratua izateak gertakizun historiko baten aurrean jartzen gaitu. Hau da: museoan gordetzen den irudiak iraganeke sinesmenaren berri ematen digu, jada desagertua dena. Elizan zegoen *Ama Birjinaren museoan amaitu da. Noiz, nola eta zergatik izan da baztertua? Gure hipotesia da debozioaren aldaera, kasu honetan adokazioaren baztertua, gizartean eman ziren aldaketekin batera etorri dela. Aldaketa hauek, baina, ez dira erlijiosoak izan. Esan nahi baita: ama birjinaren izen honen atzean hiriko talde sozial batzuk ahaldu ahala eta beste talde sozialek gurtzeko izen berriak eta propioak bultzatu ahala, NSSBV bigarren mailako erritua bihurtu zela pentsatzen dugu. Horrela balitz, aldaketak ez luke zerikusirik laizismoarekin, hiriko bizitza sozial eta ekonomikoarekin baizik.*

Beraz, litekeena da itsas merkataritzaren esparruan elite berria sortu ahala, honek leinu zaharrendik aldentzeko asmoz eta bere burua loratzeko asmoz debozio berriak sustatzea. Hau da, familia berriek sortutako ala lehenetsitako kultu eta errituek, zaharragoak zirenak ordezkatu zituztelakoan gaude. Begi bistakoa baita NSSBVrena ez dela egun nagusi edo ezaguna den adokazioa Donostian; Koruko amak hartzen du toki hori. Ordezkatu al du batak bestea? Ala besterik gabe NSSBV sustatu eta hedatu zuten pertsonak zein jarduerak desagertu ahala haren gurtza ahuldu da?

Hipotesi hori baztertzeko ala berresteko ikerketa dokumentalari ekin diogu.

IKERKETAREN METODOA

Tradizionalki Gipuzkoa hiru esparru erlijiosotan banatua izan da: Calahorra, Baiona eta Iruñeako elizbarrutietan, hain zuzen ere. Donostiari dagokionez, hiria Iruñeako apezpikuaren eskumenpean izan da. Hori dela eta, lehenik eta behin *Catálogo del Archivo Diocesano de Pamplona. Sección Procesos* bildumari erreparatu diogu. Katalogoaren aurkibide idatziak erabili ditugu, 8000 bat agiriren artean. Halere, aurkibide hauetan ez dago adokazioaren arabera bilaketa egiteko modurik. Hori dela eta, funts erraldoi honetan Donostiako Santa Maria eliza da lehenetsi dugun bilaketa-gakoa.

Bilaketa honetan, arestian azaldu kezka berretsi dugu: gai zehatz hau ez da inolako auzi edo espedienteren ardatza izan, ez bederen modu nagusian. Aipatu katalogoaren espedienteak auzi judizialekoak dira; ondorioz, zeharkako bilaketa da egin behar izan duguna, auzien izaeraren arabera hautaketa egin eta auzi horren barruan gure intereseko Ama Birjiniaren arrastoa dagoen ala ez miatu. Metodo hau XVIII. mendetik atzera erabili dugu, katalogoaren lehen 14 aleak aintzat hartuta. Aurkibideak landu ondoren, Iruñean bertan egin ditugu agirien kontsulta ⁽¹⁾.

Era berean, Donostiako elizbarrutiko artxihoan ere egin dugu kontsulta. Hemen, berriz, 1813 baino zaharrago den dokumentazioa topatzea ia ezinezkoa da, jakina. Aurkibidea ere ez dago informatizatua. Taxuzko daturik ez da ageri. Artxiboko arduradunek ere ez dute Ama Birjinaren berri.

Dokumentazio zibila ere miatu dugu. Probintzia artxiboetan (Tolosan dagoen GAO zein Oñatin dagoen GPHA) protokolo historikoetan egin dugu miaketa, Donostiako barrutiko hainbat serie informatikoki landu direla probestuz (notaritzetan sinatzen ziren agiriak, fede publikoa jasotzeko asmoz zein auzi zibiletan).

Era berean, PARES izeneko datu-basean ere kontsultak egin ditugu. Bertan, besteak beste, Ameriketarako bidaiei buruzko informazioa dago eta honako hau itsas merkataritzari lotutako adokazioa dela uste dugunez, Ama Birjinaren izenaren erabileraren inguruan ikertu dugu.

Azkenik, bibliografia erreparatzean ikerketa honetarako funtsezko lana topatu dugu: Adrian Loyarte ikerlariak 1940. urtean idatzitako *Historia de Nuestra Señora del Coro y las vírgenes donostiaras*. [(Madrid ; Ernesto Giménez) : [s.n.], 1940]. Loyartek hiriko andra mari guztiak dokumentatzen ditu. NSSBVri dagokionez, Loyartek bere lana idaztean hura ordurako jada museoan zegoen, eskulturaren egoera fisiko tamalgarria medio. Horrek, nolabait, adokazio honekiko bazterkeria ala ahanztura adieraziko luke, denboran zehar gertatutakoa.

Loyartek lan ona egin zuen dokumentazioari dagokionez eta haren adierazpenak gida lerro gisa izan ditugu.

Horrela, datu berriak eta datu zaharrak bildu ditugu gure ikerketara.

1. Hautaketaren berri lehen eranskinean

EMAITZA

Lortu dugun informazioari helduz, aurreratu bezala, ia datu guztiak zeharkakoak dira. Hots: Ama Birjinari buruz agertzen diren aipamenak bestelako gairen bat oinarri zuten espedienteetan lortu dira.

Orokorrean, informazioaren tipologia bi motatakoa da.

- Auzi judizialean agertzen dena: elizaren jardueren inguruan nahiz merkatal tratuen inguruan piztu eztabaidetan, adbokazioa ala tailla aipatua izan da.

- Ama Birjinaren izenaren erabilera, itsasontzietan.

Horiek horrela, informazioa bi esparrutan banatuko dugu.

- *Debozioaren nondik norakoak eta ondorioz gurtzaren galeraren nondik norakoak*

- *Eskulturaren kokapen fisikoa elizan*

Lehen atalari gagozkiola, debozioaren jatorriari dagokionez, “Sorospena” nahiz “Bidaia ona” itsas bidaiak gogora dakartzaten deiturak dira. Berez, Sorospenaren Ama Birjina Palermon sortutako gurtza mota da, XIV. mendearen hasieran, hain zuzen ere.

Nonbait, Sorospenarena izendatzeak ez du hasieran itsasorekiko lotura, eta San Agustineko ordenaren fraide baten sendatzearekin du zerikusia. Honi, gerora, Palermon gertatu pasadizo bat erantsi zitzaion: ama baten madarikazioaren ondoren deabrua agertu omen zen, haren semeaz jabetzeko, Ama Birjinak ekidin zuen.

Azken ustezko gertaera honek finkatu zuen Sorospeneko Andramariren ikonografia. San Telmoko irudian deabrua edo Ama Birjinaren borra ez dira agertzen, bai ordea zailtasunak eritasunak dituen haurra, bere babespean.

Palermotik eta Unbriatik Aragoiko koroan zehar barreiatu omen zen adbokazioa, baina zehazki Palermoko hirian du jatorria ⁽²⁾.

Iritzi berekoa da Loyarte ere. Euskaldunen itsas “zaletasuna” Atlantikoan kokatzen badugu ere, gure aurrenekoek itsas ofizioak Mediterraneoan garatu zituzten aurretik, Chaunu bezalako autore klasikoek edo egungo Gipuzkoako mediebalistek, lago Irixoa esaterako, gogora ekarri bezala. Halere, une horretan ez dago itsasoa eta Ama Birjinaren arteko loturarik.

Beraz, zehaztu ezin den dataren batean Sorospena itsasoari lotu zitzaion: itsasoratu aurretik, itsasoan laguntzeko eta bidaia ona egiteko otoi egiten zitzaion Ama Birjinari, bistan denez. Litekeena da, gainera, kristautasunaren aurreko ohitura izatea honako hori, nahiz eta horretarako datu zehatzik ezin ekarri txostenera. Bestalde, “Bidaia ona” Ama Birjinari ez ezik, Kristoari ere eransten zaio, esaterako Pasaian.

Hori dela eta, adbokazioa Donostiara iristeko balizko bide bat proposatzen uzten du. Alegia, Italiatik Donostiarako bidea nolakoa izan zen irudikatzen laguntzen du, nahiz eta datu zehatzik ezin eman.

Aukera bat da arestian aipatutakoa: Italiako gerren bidez Aragoiko koroaren lurraldetik sartu eta hango merkataritza sarean ala gerretan parte hartzen zuen eta hirian itzala zuen donostiarren baten batek ekarri izana.

Ala, Italian errotu baina jatorri donostiarra zuen hiriko eliteko familiaren baten, Sorospeneko zalea izan eta Donostian, itsas merkataritza medio, Bidaia ona gehitu.

Izan ere, itsasoratu aurretik NSSBV-ri otoitz egiteak itsasontzia ez hondoratzea eta inor ez itotzea helburu duela dokumentazioan jasotzen duen erritua da. Hala aitortzen da 1614. urteko epaiketa batean: Sebastian Burboa kapitaina duen NSSBV izena duen itsasontzia agertzen da bertan, Ternuarako bidaiari lotuta. Gure ikerketa honetan, lehen esan bezala, epaiketaren zioa baino baino garrantzitsuagoa da auzia gertatzen den bitartean agertzen den ohitura honen aipamena.

2. Silvia ALFONSO CABRERA (2018): “Base de datos digital de iconografía medieval”. Madrid, UCM <https://www.ucm.es/bdiconografiamedieval/virgen-del-socorro>. [2021ko abenduaren 6an kontsultatuta]

Herbeheretara zein Ameriketara ontziratu aurretik NSSBV Ama Birjinari otoitz egiten ziotela agertzen da bertan; eta hala eginez gero, inor ez dela inoiz ito, ezta ontzi bat bera ere galdu. Loyartek jasotzen du pasadizoa ⁽³⁾.

Beraz, gurean, NSSBV delakoa, itsas merkataritza atlantiarrari estuki lotutako adbokazioa dela berresten dugu; bai eta, Ameriketarako bidaiaren aurretik ere, Herbehereak aipatzen baitira honekin batera. Hortaz, ohitura gutxienez XV. mendean indarrean zegoela ematen du. Hau da: Pasaia (Donostia)-Baiona-Bordele-Arroxela-Anberes-Bristol ibilbidean zehar ere.

Dena den, oraingoz topatu dugun datarik zaharrena 1579koa da. Urte horretako uztailaren 18an Martin Perez Arbelaitz eskribauaren aurrean Luiz Plazaolaren emazte Maria Perez de Berastegik sinatzen duen testamendua aipatzen baita “Nuestra Señora del Socorro” Andra Maria. Loyartek jasotzen du datua; guk auzia lokalizatu dugu Iruñean ⁽⁴⁾.

Bestalde, otoitza ez ezik, Ama Birjina honekiko leialtasun nahiz zaletasuna itsasontzia izen horrekin bataiatzean datzala uste dugu, babespena etengabekoa bihurtze aldera. Horrela baieztatzen du dokumentazioak, izena maiz agertzen da eta itsasontzietan lotuta. Esaterako, aipatu Sebastian Burboa kapitainaren ontzi *Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje* jada 1609an agertzen zen ⁽⁵⁾; deitura bera du 1612an Juan Etxeberria kapitainaren itsasontziak, Pasaia-Sevilla-Cadiz bidaia egiten duena (Ameriketara beraz?) ⁽⁶⁾.

Ildo honetan, bigarren eranskinean PARES deritzan datu-basean egindako miaketaren berri emango dugu. Hor zerrendatu ditugu NSSBV izena zuten itsasontzien gora beherak.

Beraz, hauetan guztietan auziaren arrazoiak ez du garrantzia guretzat, izan ere gehienetan arrazoi hori ekonomikoa da, tratu komertzialen ondorioak, ez eta adbokazioari lotuak. Baina, ondorioz, XVII. mendearen hasieran Ama Birjinaren izena Ameriketara zihoazen ontzietan erabili ohi zela eta indarrean

eta normalizatua zegoela uzten du agerian honek. Ziur asko, zaharragoa zen ohitura Ama Birjinarengana gorpuzten zen modu horretan.

Itsasoratu aurreko otoitzak zein zinak bazuen buelta behin onean lehorreratuz gero. Horregatik, hil aurreko azken borondateetan Ama Birjina loratzeko, apaintzeko eta eskerrak emateko ematen ziren opariak ugariak ziren.

Berriz ere Loyarte hartzen dugu ardatz, nahiz eta bere dokumentazioaren iturria Iruñean bertan zehaztu behar izan dugun. Horrela, 1609an, bere testamenduan San Juan Lizardik bere kaperautzan bi meza egitea agintzen du: “las cuales, si buenamente se pudiera, se recen en el altar de Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje, de la dicha yglesia de Santa María, o en el altar privilegiado.” ⁽⁷⁾

Era berean, 1625eko otsailean Franzisko Orbietaren alargun Madalena San Lorentek NSSBVren aldarean kaperautza sortzen duela topatzen dugu. 1629an, ordea, Martin Zuloetaren emazte Francisca Zozoiak, testamenduen bidez, besteak beste zera uzten du mezarako ⁽⁸⁾: “Un frutero de red, el mejor que tengo en mi casa, y un corte de brocatel que ay en mi casa, para nuestra señora del socorro; digo, paño de mano de red”.

Ildo berean dugu Luis Iturralderekin dohaintza: “avía mandado un rosario de coral, con su joiel, para la ymagen de Nuestra Señora del Socorro de la dicha yglesia de Santa María” ⁽⁹⁾.

Halere, topatu dohaintzen artean, esanguratsuen Antonio Okendo berarena da, Ama Birjinaren taillaren aldarearen aurrean dagoen lanpara (olio-lanpara ziur asko) Antonio Okendok emana ala ordaindua baitzen. Lanpararen argia zaintzeko serora bat dago soldatapean ⁽¹⁰⁾. Alegia, XVII. mendearen hasieran ez ziren soilik merkataria eta marinela Ama Birjina hau gurtzen zutenak, itsas armadako buru eta hiriko elite klasikoaren adibidea baita Okendo.

3. Iruñean lokalizatu dugu auzia: Iruñeako Artzapezpikutzaren Artxiboa. Auziak. Ollo idazkaria. 705, 28.

4. Iruñeako Artzapezpikutzaren Artxiboa. Auziak. Garro idazkaria. 430, 7. Hiriko prozesioi buruzko auzia da.

5. Gipuzkoako Artxibo Orokorra (GAO): CO MEJ 568

6. GAO: CO LIC 388

7. Loyarte: op cit: 184. orrialdea. Iruñeako Artzapezpikutzaren Artxiboa. Auziak. Ollo idazkaria. 611, 10; 665, 4.

8. Iruñeako Artzapezpikutzaren Artxiboa. Auziak. Ollo idazkaria. 670, 5.

9. Iruñeako Artzapezpikutzaren Artxiboa. Auziak. Ollo idazkaria 924,6.

10. GAO: CO LCI 1379. Auzi hau XVIII. mendekoa bada ere, lekukotasunetan eta aurkeztu agiritan atzera egiten du denboran, Okendoren garaira arte.

Beste batzuetan, berriz, Ama Birjinaren alboan, azpian hobe esanda, lurperatzea da eskatzen dena, bizitza terrenalean ez ezik, behin betikoan ere hari lotuz. Nolabait, bidaia zelestialean ere gidari ona izango zelakoan. Loyarteren datuak hartuz gero, honako hau eskatzen dute:

- 1611n Martin Perez Arbelaitzek. Haren gurasoekin batera hilobiratzea eskatzen du, hain zuzen ere “Nuestra Señora del Socorro”ren irudiaren aurrean.

- Hantxe bertan daude Domingo Gregorio Yun eta Francisco Zubizarretaren hilobiak ere, 1649an. Azkenik, eta aurreko datuekin bat eginez, mezak ere ospatzen ziren Ama Birjinaren aurrean. Hala aurkitu dugu 1640-1641 bitartean⁽¹¹⁾. Azken aipu horretan, baina, badago beste datu, gure ustez, oso interesgarria. Izan ere, ordaintzen diren mezak Juan Martinez Berastegik sortutako kapilautzari dagozkio. Ablitaseko jaun Berastegi inperioko goi karguduna izan zen XVI. mendean. 1579an Boloniako kolegioan dugu ikasle; gerora, Belgikan Errege Kontseiluko kide, Milanon senadore zein “Oilarraren epailea” izan genuen⁽¹²⁾.

Alegia, Berastegiri esker berriz ere Italiara itzultzen gara. Berastegik, baina, bestelako dimentsioa ematen dio, Italian ez ezik Herbeheretan zerbitzatu baitzuen inperioa. Horrela, adwokazioaren jatorria (Italia) zein adwokazioaren erabileraren esparrua (Atlantikoa) batzen ditu honek.

Gogoan izan gorago egindako beste aipamenean Berastegi sendia bera ere agertzen zela, eta orain arte topatutako daturik zaharrena haiei lotzen zaiola. Beraz, galdera zilegi da: haiek al dira adwokazio hau Donostiara ekartzen eta zabaltzen dutenak? Hala balitz, familia horren kideak al dira San Telmok gordetzen duen irudian emaile gisa agertzen direnak? Familia barruan gertatutako gaitz bat gaintitu ondoren zaletu, eta ondoren Bidaia ona erantsi? Ez dago daturik hala berresteko, baina gurtzaren izaera soziala ulertzeko laguntzen duen hipotesia da.

11. Iruñeako Artzapezpikutzaren Artxiboa. Auziak. Mazo idazkaria. 580, 3.

12. Borrajo y Herrera, P.; Gíner de los Ríos, H.: El Colegio de Bolonia: cenón de noticias relativas a la fundación hispana de San Clemente. Madrid: Establecimiento tipográfico de M. Minuesa de los Ríos, 1880. www.forgottenbooks.com (2021-XII-6an kontsultatuta). Oilarraren eta Zaldiaren zigiluen epaileak Milango bi kargu publiko ziren. Chabod, F.: “Stipendi dei funzionari milanesi alla fine del ‘500”. Miscelanea in onore de Roberto Cessi. v. II. Roma: Edizioni di storia e letteratura, 1958. Salvi, S.T.: Tra privato e pubblico: notai e professione notarile a Milano (secolo XVIII). (Università degli studi de Milano: facoltà de giurisprudenza. Googlebooks-en kontsultatuta).

Dohaintza, meza eta hilobiek bide ematen digute gure ikerketaren bigarren esparruari heltzeko: elizan taillaren kokapen fisikoari, hain zuzen ere. Loyartek berak gaia jorratzen du, nahiz eta bere azalpena oso argia ez izan. Adibidez, NSSBVren eskultura tokiz aldatzeko arrazoien artean, 1646. urtean Santa Marian sortutako beste gurtza bat aipatzen du Loyartek, “Corona de espinas” deritzan adwokazioarena, hain justu⁽¹³⁾. Horrela ematen da aditzera horrekin lotutako bigarren auzi batean, “porque en otro pleito que se lleva con mis partes en el tribunal y en el oficio del secretario Trebiño con don Miguel de Aguirre... sobre la traslacion de la birgen del buen viaje...”⁽¹⁴⁾. Ondorioz, une horretan, XVII. mendearan erdialdean beraz, Ama Birjina San Markoren kaperan egongo zela ondorioztatzen da.

Alabaina, Loyarteren esanetan: “El altar de Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje estaba colocado en el lado de la epístola. Al ser modificada la planta de la nueva iglesia, fue colocada la imagen en el altar cuyo diseño hizo D. Ventura Rodríguez, enfrente a su igual Nuestra Señora de la Soledad”. Hemendik aurrera, berriz, Loyartek oso ondo zehazten du eskulturaren joan-etorria San Telmora iritsi aurretik. Horrela, lekualdatzearen arrazoi nagusietakoa Kardaberaz jesuitak Bihotz Sakratuaren debozioa bultzatzea da.

Horretarako aldarerik ez zuenez, Ama Birjinarena hartu zuen: “Como no tenía altar propio, determinaron dedicar el altar de Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje al Sagrado Corazón de Jesús. Y pusieron una imagen del Niño Jesús adolescente. Algunos dicen que fue escultura de Felipe Arizmendi. Retirado de aquel altar, se trasladó al templete del altar mayor de la parroquia de Santa Maria. Restaurada, se colocó una peana al estilo y color del nuevo altar. Más tarde, y aunque no comprendimos nunca este interés de ir cambiando de altar en altar a una escultura de tanto mérito y historia donostiarra como la de Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje, se la trasladó al camarín de Nuestra Señora del Coro. Allí continuaba, debajo de la escalera que conducía al trono de la imagen. Estaba sobre un altarcito. Allí, según tradición, sufrió las consecuencias de algunos incendios. Ennegrecida y deteriorada por las llamas, al hacerse la nueva obra del camarín, el arcipreste... Agustín Embil, según referencia de buen origen, la envió al Museo Municipal de San Sebastián.” museoan zaharberritu egin zuten.

13. Iruñeako Artzapezpikutzaren Artxiboa. Auziak. Ollo idazkaria. 775, 4.

14. Iruñeako Artzapezpikutzaren Artxiboa. Auziak. Ollo idazkaria. 781, 1.

Enbil, Kardaberaz bezala, Bihotz Sakratuaren debotoa omen zen, eta haren gurtzaren sustatzailea. Era berean, San Telmo Museoko kidea ere bazen, eta horrek azalduko luke Ama Birjina museora leku aldatzea. <https://idanusa.blogspot.com/2013/03/don-agustin-embil.html?view=magazine> eta <https://ley.exam-10.com/istoriya/16346/index.html> [2022ko urtarrilaren 11an kontsultatuta]

Loyartek balorazio artistikoa eta guzti egiten du. Horrela, ikonografikoki Piero della Francescaren Madonna de la Misericordia delakoarekin alderatzen du. Halere, dio Loyartek, Donostiakoa dotoreagoa da. Izan ere, birjinak marinelei ematen dien babesa eskulturak duen kapa ala mantuaren bidez irudikatzen omen da.

Kardaberazen ekintza XVIII. mendekoa da. Beraz, Berastegi zein Okendo izen handien babesa eta zaletasuna izan bazuen ere, ordurako Ama Birjina honen esanahia eta hiriko bizitza sozialean zuen pisua zeharo lausotua behar zuen. Bestela nekez gutxietsiko zuten modu horretan izugarrizko kalapita sortu gabe. Ondorioz, zilegi da galdetzea ea zer aldatu den hirian XVIII. mendean. Gure ustez, itsas merkataritza eredu berria da gakoa.

ONDORIOAK

Horiek horrela, **Ama Birjina honen unerik onenak XVI. mendea eta XVII. mendearen lehen erdialdea** izan zirela uste dugu. Hiriko izen handiak (Berastegi, Okendo) haren babesa eskatu edo haren izena loratu egin zuten, bai eta hiriko marinel, itsas-merkatarari eta sinestun ugarik ere. Izenak aditzera ematen duen bezala, itsas-bidaiei lotutako adbokazioa da. Mediterraneoan sortu bazuten ere, Donostian ondo baino hobeto errotu zen. Alabaina, bere **hedapena lehen-lehenik Atlantiko europarrean zehar eraman zuten donostiarrek; eta berehala, Ameriketara ere.**

XVII. mendearen bigarren erdialdean, abagune ekonomikoa etzen batere positiboa izan. Ez soilik Donostian, Europa osoan baizik. Horrek, adbokazio honen sustrai popularra eta sustrai ekonomikoa higatu zituela uste dugu.

Horrekin batera, gainera, adbokazio berriak sortu ziren. Interes berriak, familia eta elite berriak zeuden hirian Kardaberazen garaian, XVIII. mendean. Behar bada, eta honekin ere Loyarte ados dago, Caracasko elkargoari lotutako jardunak behin betiko baztertu zuen gurtza hau Donostian. Hots: **itsas merkataritza eredu berriek, haren sustatzaile eta horri esker aberastutako leinu berriek, botere erritu berriak behar zituzten, haien arrakastaren erakusle. Horretan, koruan zegoen Ama Birjina nagusitu zen, Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje-ren adbokazioa eta gogoa bigarren mailan utziz.**

Horrek, hasieran plazaratu dugun hipotesia berretsiko luke. Guztiz berresteko, ordea, hiriko eliteen arteko tirabirak eta hiriko hierarkiaren garapena aztertu beharko lirateke sakonki, eta, ikerketa horrek dokumentazio lan honen mugak gaintzen du. Hala ere, adbokazioaren une gorena eta, batez ere, adbokazioaren baztertzea ulertzeko datuak jaso eta arrazionalizatu ditugulakoan gaude.

1. ERANSKINA

Catálogo del Archivo Diocesano de Pamplona. Sección Procesos
aurkibidea Loyarteren lanarekin gurutzatuta.

v.1 1559-1589

Secr Ibarrola C/70, 32

Hermanos Santiago solicitan info previa erección altar privilegiado en Santa María. 1580.

Preguntas sobre la iglesias de la villa y sobre la actividad de la ciudad.

Secr Cascante C/35, 1

Cláusula testamentaria sobre aceite en el altar de Santa María. 1554

Secr Cascante C/36, 1

Constitucionales de las parroquiales de la ciudad. 1555

Secr Ciordia C/46,3

Sobre propiedad de sepultura en el altar de Santa María la Antigua y sobre uso y patronazgo de dicho altar. 1550

La imagen estaba en el altar mayor y fue trasladada al sitio actual.

v.2 1589-1598

Secr Sojo C/93, 2

Obras en Santa María. 1594.

Secr Garro C/127, 1

Más sobre obras, sobre la casa adyacente derribada para ampliación. 1590

Secr Garro C/151, 14

Nuevas constituciones parroquiales. 1592 y copia de las de 1576 y 1584

v.3 1598-1611

Secr Garro C/180, 1

Sepultura en Santa María. 1602 con testamento de 1560 (Zamatete)

Secr Garro C/196,8

Obra en cabecera y capillas de Santa María. 1605. Escritura de 1593

v.4 1611-1622

Secr Treviño C/254,27

Pleito por altar de Santa Bárbara, cosa de los artilleros. 1615

Secr Treviño C/284,42

Festividad de Nuestra Señora de Agosto. 1624

v.5 1622-1634

Deus ez

v.6

Deus ez

v.7

Secr Garro C/430,7

Pleito por procesiones. 1600. LOYARTE

Capas de Santa María. Inventarios de bienes de las parroquias.

Secr Aguinaga C/437, 35

Cuentas parroquia Santa María. 1555-1569

v.8 1614-1630

Deus ez

v.9 1634-1695

Secr Mazo 580, 3

Juan Martínez Berastegui, senador en Milán. Capellanía. 1648

+ v. 11. Secr Ollo, 667-27, mismo tema, 1616.

v.10

Secr Mazo C/617, 1

Sepultura debajo del coro. 1657

Secr Ollo C/611, 10 LOYARTE

Capellanía de Juan de Lizardi. 1625

que data de 1611, según testamento, y se materializa su deseo en 1617

+ v. 11. Secr Ollo 665-4. Mismo asunto. 1634

v. 11

Secr Ollo 679, 1. Retablo mayor. 1617

Secr Ollo 697, 24. Sepulturas junto escalera del coro. 1628

v. 12

Secr Ollo 705, 28

Barboa, Arellano. Barco a Terranova de nombre Nuestra Señora del S y BV. 1629. LOYARTE

Secr Ollo, 670, 5

Testamento de Francisca Zozaia, con mandas NSSBV. 1615. LOYARTE

Secr Ollo 775, 4

Pleito por advocación de corona de espinas, pero que motiva desplazamiento de NSSBV. 1646. LOYARTE

+ Secr Ollo 781, 1. 1647. LOYARTE, Vargas Ponce

v.13

Secr Ollo C/796, 7.

Fundación de capellanías y obras pías de dos indios. 1652. Codicilo extenso.

Secr Ollo C/828. 26

Vestiduras y adornos de Nuestra Señora de los Remedios. 1659.

v. 14

Secr Ollo C/911, 31

Contiene cuentas capitulares. 1677

Secr Ollo C/920, 36

Sobre la administración de las rentas parroquiales. 1680. Copioso material de sentencias, cuentas, nombramientos, ordenanzas de 1489 y 1544, concordia de 1583...

Secr Ollo C/924, 6

Vicarios contra prior y cabildo. 1681. Copioso material con ordenanzas, capitulares, cuentas, sentencias, nombramientos... 1549.

2. ERANSKINA

Archivo General de Indias delakoan Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje izeneko itsasontzei buruzko berriak. <https://pares.culturaydeporte.gob.es/inicio.html> (2021-XII-06an azkenekoz kontsultatuta)

Registro de ida del navío 'Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje', de ciento noventa y cinco toneladas, maestre Juan Rodríguez de Ledesma, que salió del río Guadalquivir, con la Flota de Antonio de Oquendo, para Nueva España. Archivo General de Indias, 1613. CONTRATACION,1160,N.1

Registro de ida del navío 'Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje', de doscientas toneladas, maestre Pedro Romero Palacios, que salió del río Guadalquivir, con la flota del general Fernando de Sousa, para La Habana. 1621 CONTRATACION, 1170A,N.2

Autos entre partes de 1614. Papeles y autos pertenecientes a la quiebra de Esteban de Arce, vecino de Sevilla, y maestre de plata del galeón, Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje CONTRATACION,791A 791B 791C

Nao bera: 1617. Gil Rodríguez, como acompañado de piloto con Martín de Miravalles, maestre del navío Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje, que va a Nueva España. CONTRATACION,5780,N.62

1618, Autos sobre bienes de difuntos: Francisco de León, vecino de Zalamea, pasajero de la nao Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje, maestre Martín de Miravalles, difunto a bordo camino de La Habana. CONTRATACION,333,N.1,R.6

1618. Autos sobre los bienes de Miguel de Vergara, marinero. Difunto en San Juan de Ulúa, con relación de su testamento. Albaceas: Martín de Miravalle, dueño y maestre de la nao Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje. CONTRATACION,948,N.7

1617. Autos sobre los bienes de Juan Martínez Doria, escribano de la nao Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje, fallecido abintestado en la Veracruz. CONTRATACION,518,N.1,R.9


1620. Sebastián de Oñate, dueño de la nao 'Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje', hijo de Gaspar de los Santos y Ana Jiménez, casado con María de Castro. Falleció en Veracruz, con testamento. Albaceas: Alonso Bernal, maestre de nao, vecino de Sevilla y Antonio Pérez deAlvarez. CONTRATACION,573,N.15,R.1

Registro de ida del navío 'Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje', de quinientas toneladas, maestre Sebastián de Oñate, que salió de Cádiz, con la flota del general Juan de la Cueva y Mendoza, para Nueva España. Nota: también nombrado 'Nuestra Señora del Rosario y Buen Viaje' . 1616. CONTRATACION,1164,N.1,R.3

1614. Relación de pasajeros embarcados durante el año 1614 en la Armada del capitán general Lope Díez de Armendáriz, a Indias, en los siguientes navíos: - Galeón San Antonio de Padua. - Galeón Nuestra Señora del Socorro. - Galeón Nuestra Señora del Socorro y Buen Viaje. - Galeón San Francisco de Jesús. CONTRATACION,5339,N.28

“Sorospen eta Bidaia Oneko Ama Birjina” (Virgen del Socorro y Buen Viaje) eskultura polikromoaren berezitasuna dela eta, Donostiako San Telmo Museoak, museo horretakoa baita eskultura, Errenazimenduko tailla hori zaharberritzeko eskatu zion Artez Zaharberritzea / Errestaurazioa enpresari. Lan horren helburu nagusia izan da eskultura garrantzitsu horri irakurgarritasuna eta osotasun fisikoa itzultzea, oso hondatua baitzegoen eta arriskuan baitzegoen haren kontserbazio-egoera.

Garrantzi bereziko pieza baten aurrean geundeke, zalantzarik gabe, balio eta esanahi historiko handia baitu, baita balio artistikoa ere. Sorospen eta Bidaia Oneko Ama Birjinak XIX. mendera arte leku pribilegiatua izan zuen Donostiako Santa Maria elizan. Gero, sutea izan ondoren, San Telmo Museoari dohaintzan eman zioten eskultura, eta 5. akta-liburuan ageri zen 1919-1933 urteen artean.



FITXA TEKNIKOA

IZENBURUA

Sorospen eta Bidaia Oneko Ama Birjina

EGILEA

Ezezaguna

OBJEKTUA

Zurezko eskultura

MUSEOA / BILDUMA

San Telmo Museoa. Donostia

MATERIA / TEKNIKA

Zur landua, polikromatua eta urre-kolorea

NEURRIAK

117 x 49 x 34 cm

DESKRIBAPENA

Irudi erlijiosoa (Ama Birjina gaztea da, zutik, gorputz osokoa, koroa du buruan, eskuak elkartuak, aingeru baten buruaren gainean dago eta beste bi aingeru eusten diote mantuari. Oinen azpian eta gora begira, hainbat irudi: Aita Santua, kardinala, monjea, laikoa eta gaixo bat erreguka)

GARAIA

XVI.-XVII. mendeak



DESKRIBAPEN BISUALA

XVI. mendeko tailla da, eta esanguratsua eta bitxia da haren deskribapena, Ama Birjinaren adokazioaren aldaera formala baita. Ikono grafikoki, Ama Birjinaren beste irudikapen batzuekin aldera daiteke, hala nola:

- Mesedeetako Ama Birjinaren babesa.
- Piero della Francescaren Madonna della Misericordia.

Sorospen eta Bidaia Oneko Ama Birjinaren tailla mukulu biribileko eskultura da. Aurrealdetik, eskultura-lanaren erdian dago Ama Birjina. Gaztea da, gorputz osokoa, eta zutik dago aingeru baten buruaren gainean. Otoitz egiteko jarreran ditu eskuak eta ezkerreko belauna kontrapostuan aurreratua. Esan behar da jarrera tentea duela, baina ez hieratikoa, mugimendu okertsua ageri du, gorputz-enborra eta besoak pixka bat eskuinerantz okertzen baitira; gorputzaren beheko erdia eta burua, berriz, aurrez aurre daude.

Koroa du, burua pixka bat ezkerreko okertua. Ile motza du sorbalden gainean, aurpegiaren bi aldeak mugatuz.

Urre koloreko tunika batek baino ez du estaltzen Ama Birjinaren tailla. Tunikak esgrafiatu aberatsak ditu zurian eta krabelin gorriak. Ama Birjinaren aurpegiaren bi aldeetan dauden puttiak eusten diote mantuari, begirada harenganantz goratuarekin. Beltzean esgrafiatua da mantu. Mantu horrek estalpea ematen die Ama Birjinaren azpian dauden tamaina txikiko pertsonaiei.

Ama Birjinak oinarri duen kerubin hegoduna da, eta Ama Birjina bera, irudikapenaren ardatz nagusia, bai eta zirkuluerdian jarritako pertsonaiek bereizten dituen elementua ere. Ezkerrean, Aita Santua eta kardinala ageri dira, beren arropa bereizgarri eta esgrafiatu aberatsekin, erreku-jarreran: belauniko, eskuak elkartuta, eta burua altxatuta, irudi nagusiari begira.

Ama Birjinaren eskuinean, monje bat eta laiko bat ageri dira, jantzi tipikoekin eta gainerako pertsonaien jarrera berdinean.

Kerubinen azpian, bosgarren irudia ageri da, gaixo bat, hura ere otoitz-jarreran.

Eskulturaren atzealdea Ama Birjinaren mantuaren zabalerak eta puttien irudien atzealdeak hartzen dute ia osorik.

Pertsonaia horiek guztiak idulki obalatu baten gainean daude, urre-kolorea eta tonu urdinetan marmolizatua.



Ama Birjinaren jantzien xehetasuna. Tunika urre-kolorea, krabelinen dekorazioarekin, eta mantu beltz esgrafiatua.



Madonna della Misericordia, Piero della Francesca (c.1445), Sansepolcro Museo Zibikoa.

DESKRIBAPEN BISUALA

MISERIKORDIAKO AMA BIRJINA

*Miserikordia*ko Ama Birjina terminoak Mariaren irudi jakin bati egiten dio erreferentzia. Errukizko eta miserikordiazko keinua erakusten du Ama Birjinak, eta erruki-jarrera duten hainbat irudi hartzen ditu mantuaren azpian, Zeruetako Erreginari betiereko salbazioa eskatzen.

Ama Birjinaren tipologia horrek berretsi egingo luke modu grafikoan Behe Erdi Aroan Jainkoaren Amari esleitutako bitartekotza boterea, Jainkoaren Amak Gizadiaren kausa espiritualetan bitartekari gisa duen papera goستن baitu.

Miserikordia

Ama Birjinaren lehen irudikapenak, XIV. mendearen lehen herenean datatuak, Zisterraren Ordenaren baitan sortu ziren. Hala ere, XV. mendearen hasieratik, eskeko ordenek zabaldu zuten Europan zehar Andre Mariaren tipologia hori. Prozesu horretan, monje zuriek ez zuten ia lagundu, oso ezaguna baitzen arte figuratiboak gaitzetsi egiten zituztela.

Andre Mariaren irudi horren aurrekari ikonografiko argia aurkitu dugu erromatar inperioaren garaiko zenbait txanponetan. Kondaira klasiko baten arabera, Trajano lurrikara baten biktima izan zen Antiokian, eta onik atera zen hartatik. Gertaera hark enperadoreari sinetsarazi zion Jupiterren babes zuela, eta haren mantuarean irudikatu zuen bere burua txanponen atzealdean, *IVPITER CONSERVATOR* edo *CONSERVATORI PATRIS PATRIAE* inskripzioarekin batera. Geroago Marko Aureliok eta Antonino Pio hartu zuten ikonografia hura.

Jupiterren keinu babesle hark, enperadorea bere mantuaz estaliz, *Pietas* eta *Concordiaren* pertsonifikazioak ekartzen dizkigu gogora, inperioaren garaiko erromatar txanponetan kontserbatuak haiek ere. Haietan, bi bertute koroatu horiek giza irudi txiki batzuk babesten dituzte euren mantuarean, eta irudi horiek ere bertuteenganantz goratzen dute begirada, Miserikordia

Ama Birjinaren mantuarean oititz egiten ageri diren irudien antzeko jarreran.



Ravensburger Schutzmantelmadonna, Michel Erhart (atrib.) (c. 1480). Bode Museoa, Berlin

Azkenik, esan behar da mantuaren motiboa sinbolo babesletzat hartuko zela gero zenbait santuren irudikapenetan. Santu haiek, Ama Birjina bezala, gaixotasunen eta, oso bereziki, izurriaren aurkako babesletzat jotzen ziren, XIV. mendearen erdialdean Europa suntsitu zuen gaitzaren aurkakotzat, hain zuzen ere. (LUCÍA GOMEZ-CHACÓN, 2014)



Cadard familiaren Miserikordiako Ama Birjina (c. 1452), Enguerrand Quarton

AMA BIRJINAREN MANTU BABESLEA

Mendebaldeko zenbait adokazio, hala nola Miserikordiako Ama Birjina, Mesedeetako Ama Birjina, Babeseko Ama Birjina edo Karmeloko Ama Birjina, eskatutako obraren emaeleak mantuarekin dituztela irudikatzen dira ikonografikoki.

Alemanez, *Schutzmantelmadonna* ("Madonnaren mantuaren babesa") izen esanguratsua ematen zaio tipologia horri.

Ekialdean *Maphorion* esaten zaie (mantuaren izena, edo, hobeto esanda, Ama Birjinaren beloarena; ekialdeko tradizioaren arabera, Konstantinoplako Blanquernas elizan – Blachernitissa– gordetzen zen, eta mendebaldeko tradizioaren arabera, berriz, Chartresko katedralean dago).

Ama Birjinaren babes-izaera (Ekialdean Jainkoaren Amaren Babes gisa ospatzen dena) liturgikoki nabarmentzen da troparion zaharretik: *Sub tuum praesidium*.



Miserikordiako Ama Birjina. Domenico Ghirlandaio, (c. 1472) freskoa



Marinelen Ama Birjinaren erretaula, Sevillako Errege Alkazarreko Almirantearen Gelako kaperan, Alejo Fernándezena (c. 1531-1536).



KONTSERBAZIO-EGOERA

Mintzagai dugun hau bezalako zur polikromatuko taillei eragiten dieten alterazio-faktoreak hiru motatan sailkatzen dira: ingurumen-kausek eragindako alterazioak, eragile biologikoen eragindako alterazioak eta faktore antropikoen eragindako alterazioak.

Tailla honek hainbat patologia ditu, eta oso kontserbazio-egoera txarrean dagoela esan nahi du horrek.

Hainbat arrazoik eragindako alterazioek eta taillak jasan dituen esku-hartze desegokiek zaildu egiten dute obraren ulermen globala, eta ezin da behar bezala irakurri eta hartaz gozatu.


Alterazio horiek azalduko ditugu ondoren, euskarritik hasi eta geruza polikromoaren eta bernizaren kanpoaldeko geruzetan buka.

EUSKARRIA

Euskarriak ez du egituran kalte larririk. Esan dezakegu obrak denboran iraungo duela seguru euskarriari dagokionez.

- **Euskarria osatzen duten panelak bereiztean luzetarako pitzadura txikiak sortu dira.** Piezen lotuneetan gertatu dira, haien arteko itsaspena partzialki galdu izanaren ondorioz. Ez diote euskarriaren egiturari eragiten.
- **Intsektu xilofagoen eraso.** Intsektu xilofagoen erasoak jasan zuen piezak, horixe erakusten baitute intsektu horiek zurezko euskarriaren eragin dituzten zulo bereizgarriak. Irteerako zulo horiek nonahi aurkitu ditugu gainazal osoan. Zulo horiek multzokatzen diren tokietan, bolumen-galera txikiak eragiten dituzte, eta kalte larriak eragin ditzakete obren egituretan, baina kasu honetan ez da horrelakorik gertatu.

Idulkian, begi hutsez ikusten dira xilofagoek eragindako galeria horiek.



Obra osatzen duten panelak bereiztean eragindako arteka txikiaren xehetasuna



Intsektu xilofagoek idulkian eragindako galerien xehetasuna



Intsektu xilofagoek eragindako zuloen xehetasuna

- **Bolumen-galera puntualak eta txikiak**, esate baterako, gotzainaren pertsonaiaren sudurrean, eta apaizaren kapelan, non metalezko elementu herdoildu txiki batzuk ikusten diren.



Bolumenaren galera txikia eta iltze oxidatuak pertsonaietako baten kapelan



Pertsonaietako baten mahukako euskarri-galeraren xehetasuna

APARAILUA, PRESTAKETA

Polikromia galdu den eta jatorrizko iztukua agerian dagoen lekuetan, itxura idorra eta apurtua du iztuku horrek.



Iztukuak idulkian duen itxuraren xehetasuna



Ama Birjinaren karnazioaren polikromiaren alterazioa, sute batek eragina

PINTURA-MINTZA

Alterazioek eta pintura-mintzean egindako esku-hartze ezin okerragoek arriskuan jarri dute obraren osotasuna eta zaildu egin dute haren irakurketa.

- **Belztea.** Izandako sute batetik hurbil egoteagatik obrak jasan zuen beroaren ondorioz, polikromia ilundu egin da oro har.

Gainera, tenperek eta pertsonaien jantzien estratigrafiatu aberatsek ez dute, itxuraz bederen, aldaketarik eta distorsiorik izan koloreetan. Aldiz, Ama Birjinaren eta puttien karnazioetan, beroak eraldatu egin du polikromia, anpuluak sorrarazi ditu gainazalean eta aldaketa kromatikoak eragin ditu.

- **Azaleko zikinkeria;** zikinkeriaz betea dago obra eta horrek itxura zurixka eman dio taillari.




Irudietako batek ageri duen itxura zurixka

- **Pintura-mintza idorra.** Hori nabarmenagoa da, batez ere, idulkian.
- **Pintura-mintza harrotua.** Toki askotan harrotua dago pintura-mintza. Zati batzuk erori ere egin dira.
- **Pintura-mintza galdua.** Hutsune ugari ageri dira obra osoan zehar, hainbat tamainakoak, eta argi ikusten dira bai aurretik bai atzetik begiratuta. Pintura-mintz asko galdu denez, %60 ingurukoa da kontserbatu dugun polikromiaren proportzioa.

Idulkian azalera handia hartzen dute hutsuneek, eta han txikiagoa da kontserbatu den polikromiaren proportzioa.



Polikromia harrotua taillaren beheko aldean.



Polikromiaren eta iztukuaren galera ugari Ama Birjinaren mantuan



Polikromiaren eta iztukuaren galerak, idulkian



Ama Birjinaren karnazioaren ezkerreko erdiaren garbiketa




Bolumen-galera berreraikia Ama Birjinaren mantuaren beheko aldean

AURREKO ESKU-HARTZEAK

Obran egindako aurreko esku-hartzeak oso nabarmenak eta desegokiak dira:

- **Garbiketa urratzailea** taillaren goiko erdiko karnazioetan.
- **Galdutako bolumenak berreraikitzea.** Falta ziren zati txikiak iztukuarekin, eta zati handiagoak, berriz, zurarekin.
- **Hutsuneak iztukuz betetzea;** gutxienez 2 esku-hartze desberdinetan. Lehen iztuku lodiago bat dugu, hauts-itxurakoa eta kolore horixkakoa eta bigarrena zurixkakoa da.

Biek ezkututzen eta inbaditzen dute jatorrizko pintura-mintza, eta trauskilak eta gaizki eginak dira.



Aurreko esku-hartze batean jarritako iztukuaren xehetasuna

Hutsuneak iztuz betetzeko esku-hartze horiek eraso egin diote obrari eta zaildu egiten dute haren irakurketa; izan ere, inolako irizpiderik gabe eta obrari errespeturik gabe jarriak dira.

Hutsuneak betetzeko jarritako iztuku gehienak obraren aurrealdeko ikuspegiaren eskuineko erdiari egiten dio eraso, bai eta atzealdeko ikuspegi osoari ere.

Halatan, Ama Birjinaren irudia inguratzen duten errezelen ezkerreko erdian, polikromia falta den lekuetan agerian dago zura, eta eskuineko erdian, berriz, gaizki iztukuak daude.

Idulkiaren aldean, bai jatorrizko iztukua, bai aipatutako bi esku-hartze horietan jarritako iztukuak hautsez beteta daude, arrailduak eta harrotuak.



Irudia atzealdearen xehetasuna, jarritako bi iztukuak ageri dira bertan. Obraren jatorrizko azalera erabat hartzen du zurixkenak



Aurreko esku-hartze batean jarritako iztukua, horixka eta hauts-itxurakoa



Eskultura aurrealdetik ikusita. Ikus dezakegu eskuineko erdia iztukatua dagoela, eta ezkerrekoa, berriz, iztukatu gabe

HASIERAKO ARGAZKIAK



Aurrealdea



Atzealdea

KONTSERBAZIO- EGOERAREN MAPAK

POLIKROMIAN
DAUDEN ALDAKETAK



Erredurak



Polikromia galerak



Aurrealdea

POLIKROMIAN
DAUDEN ALDAKETAK



Erredurak





Polikromia galerak



Atzealdea

AURREK ESKU-HARTZEAK

 Iztukatua

 Gehiegizko garbiketa, urradura



Aurrealdea

AURREK
ESKU-HARTZEAK



Iztukatua








Gehiegizko garbiketa, urradura



Atzealdea






EUSKARRIAREN KONTSERBAZIO- EGOERA

-  Erredurak
-  Xilofagoen erasoa
-  Polikromia galdua
-  Bolumen galdua
-  Piezak bereziak



Aurrealdea

EUSKARRIAREN
KONTSERBAZIO-
EGOERA

-  Erredurak
-  Xilofagoen erasoak
-  Polikromia galdua
-  Bolumen galdua
-  Piezak bereziak



Atzealdea

ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

HELBURUAK:

- Kalteak eta eskultura hondatzen ari diren kausak geldiaraztea.
- Osotasun fisiko materiala berreskuratzea, obra osatzen duten materialak finkatuta eta sendotuta.
- Obraren unitate potentziala eta kalitate estetikoa berreskuratzea, denboraren joanaren aztarnak ezkutatu gabe.

IRIZPIDEAK:

Aukeratutako tratamendu-sistemak jatorrizko geruzak ahalik eta gehien errespetatzeko ideiarekin arabera ezarri dira beti, eta, funtsean, irudia elementu funtzional, artistiko eta historiko gisa kontserbatzeari eman zaio arreta. Halatan, kontserbazio-tratamenduei eman zaie lehentasuna zaharberritzeko tratamenduen gainetik.

Berrintegrazteko tratamenduetan, helburua izan da espazioen irakurketa erraztea, bakarka nahiz osotasunean hartuta, baina betiere denboraren joanak obran utzi duen arrastoa errespetatuz. Arreta berezia eman diogu garbiketa prozesuari, hori esku-hartze atzeraezina delako, eta egindako probak eta lortutako emaitzak erregistratu ditugu. Berrintegrazio kromatikoak egin ditugu metodo bereizgarriak eta itzulgarriak erabiliz.



Polikromia finkatzeko prozesua

ZAHARBERRITZE-PROZESUA

San Telmo Museoak Gordailun (Irun) dituen zaharberitze-tailerretan egin dira Sorospen eta Bidaia Oneko Ama Birjina zaharberitzeko lanak, eta 7 aste iraun dute.

JARRAIPENA ETA DOKUMENTAZIOA

Lanak iraun duten bitartean, kontserbazio egoerari, tratamenduen bilakaerari eta azken emaitzari buruzko informazio guztia bildu dugu hainbat jarduketa-sistemaren bidez. Horren bitartez, lanen norainokoa ezagutarazi nahi dugu, bai eta ondorengo esku-hartzeetan edo ikerketa helburu duten beste batzuetan lana erraztuko duen informazioa eman ere.

Informazioa biltzeko eta kontrol eta jarraipen lanetarako aukeratu diren jarduketa-sistemak elkarren osagarri dira, eta egunkariak, fitxa teknikoak, planoak eta argazkiak dira.

Lanetan zehar, prozesuen aurreko eta aldi bereko gorabehera guztiak jaso dira. Horri esker, une oro identifikatu ahal izan ditugu esku hartzeko eremua, aurkitutako kontserbazio-egoera eta egindako tratamendua.



Obraren argazki-dokumentazioaren prozesua

ARGAZKI-DOKUMENTAZIOA

Esku-hartzearen hasieran, taillaren argazki-erregistro osoa egin dugu, eta argazki horietan zehatz-mehatz jaso dugu irudiak duen kontserbazio-egoera. Piezaren narriadurak nabarmendu ditugu lan horretan. Horretarako, hartualdi orokorrak eta xehetasunenak bildu ditugu argazki-dokumentazioan.

Erregistro horrek jarraipena izango du zaharberitze-prozesu osoan, eta dokumentatuta geldituko dira piezari egiten zaizkion esku-hartze guztiak.

Argazki-dokumentazioa bukatuko da taillaren azken egoera argazkietan jasotzean, esku-hartzea amaitutakoan.

Honako argazki-teknika hauek erabili dira:

- **Argazki-azterketa argi ikusgaiarekin eta makroargazkiekin.** Olympus PEN Lite E-PL7 kamera digitalarekin egin ditugu argazkiak eta makroargazkiak.
- **Mikroargazkiak mikroskopio digitalarekin.** Argazki-azterketa zehatua egin dugu Dino-Lite Universal AM4113ZT mikroskopio digitalaren bidez. Mikroskopio horrek 200 X arteko hazkuntza optikoa eskaintzen du, eta, horri esker, geruzak zehatz-mehatz azter daitezke, metodo suntsitzailea izan gabe. Mikroskopio digitalaren bidez, garbiketa kimikoaren aurrerapena eta zehaztasuna ere jaso ditugu.

GARBIKETA MEKANIKOA

Hautsa xurgatzea: esku-hartzearen hainbat unetan egin dugu lan hori. Lehenbizi, lanak hastean, polikromia finko dagoen eremuetan bakarrik, hura xurgatzeko arriskurik gabe. Azkena, berriz, amaierako babesa aplikatu aurretik. Mikroxurgagailuarekin eta hainbat tamainako brotxen laguntzarekin egin ditugu xurgatze-lanak.

POLIKROMIA FINKATZEA

Polikromia-geruzak euskarririk bereiztea patologia larritzat jotzen da eskulturan, eta lehentasuna eman behar zaio patologia horren tratamenduari; izan ere, hondatze progresiboa da eta kalteak ez du atzera-bueltarik. Begi hutsez oso erraz ikusten da kalte hori, pintura-galera ugari eragin baititu, hau da, polikromiaren % 40 inguru galdu du. Galera horietako asko ezkutuan zeuden aurretik egindako esku-hartzeetan jarri ziren iztukuen ondorioz.

Hiru itsasgarri desberdin probatu ditugu: bat naturala, obra osatzen duten materialen antzekoa delako, eta bi sintetiko, dituzten ezaugarri teknikoengatik.



Polikromia finkatzeko prozesua. Altxatuta zeuden zatiak japoniar paperez babestuak ageri dira

1.- Untxi-kola uretan, aurrez ur-alkoholez hezetuta.

...Injekzio bidez aplikatu dugu hori.

Ondo itsasten du, baina oso oldarkorra da polikromiarekin, eta ezpal txikietan apurtzen du; izan ere, hezetasan handia ematen dio eta ez du betetzen polikromia-geruzen eta euskarri uzkuartuaren arteko barrunbea.

Behar bezala kentzen ez bada, distirak uzten ditu polikromian.

2.- Aquazol® 200 %5 urarekin, aurrez ur-alkoholez hezetuta.

...Injekzio bidez aplikatu dugu hori.

Kasu honetan ez da eraginkorra, oso likatsua baita, eta horrek zaildu egiten du ondo barneratzea.

3.- Tylose® MH 300P %3 ur-alkoholarekin (70:30), aurrez ur-alkoholez hezetuta.

...Injekzio bidez aplikatu dugu hori.

Ondo itsasten du. Ondo barneratzen da, nahiz eta oso likatsua izan. Hori dela eta, betegarri eta "ohe" gisa jokatzen du, eta finkatzean ez du zatitzen edo hausten polikromia.



Ez du aldatzen polikromiaren itxura bisuala.

Probak egin ondoren, honako hau erabiltzea erabaki genuen:

- Tylose® MH 300P %3 ur-alkoholarekin (70:30), aurrez ur-alkoholez hezetuta. Injekzio bidez aplikatu dugu, polikromiari arrain-gelatinaz (itsaste arina eta erraz kentzeko modukoa) itsatsitako japoniar paperezko interfazea ezarrita. Papereztatzeak ez dio inola ere eragiten polikromiari, eta behar bezala finkatuta geratzen da. Ez du geruza askatzeko arriskurik sortzen, ez eta distirarik edo alterazio kromatikorik ere.

El Tylose® kolak ondo itsasten du eta ondo barneratzen da, nahiz eta oso likatsua izan. Finkatzean ez du zatitzen edo hausten polikromia, eta ez du haren itxura bisuala aldatzen.

Polikromiaren finkatze prozesu sakona egin bada ere, aldian behin berrikusi egin beharko da obra, zein kontserbazio-egoeratan dagoen kontrolatzeko.



Polikromia finkatzeko prozesua. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: Hasierako egoera. Japoniar paperaz babestea. Itsasgarria injektatzea. Azken emaitza

AURREKO ESKU-HARTZEETAKO IZTUKUAK MEKANIKOKI KENTZEA



Bisturiaren laguntzarekin iztuku-geruzak mekanikoki kentzeko prozesua

Aurreko esku-hartzeetan jarritako iztuku guztiak kendu ditugu; izan ere, oso trauskil itsatsiak ziren eta polikromiaren zati bat hartu eta ezkutatzen zuten. Iztuku horiek desnaturalizatuak daude, eta oso desegoki jarri zituzten altxatutako polikromiari “eusteko” eta kolorea galdua zuten zatiak estaltzeko.

Iztukuak kentzeko prozesua erabat mekanikoa izan da bisturiaren laguntzarekin, baina kolore zurixkako iztukuak (gehienbat atzealdean daudenak) pixka bat hezatu egin behar izan ditugu alde aurretik. Prozesu horrekin batera, pieza mikroxurgatu dugu.

Polikromia finkatzearekin batera egin dugu iztukuak kentzeko prozesua, eta hiru aste iraun du. Prozesu motela eta zehatza izan da, eta, hari esker, nabarmen aldatu da piezaren irakurketa.

Prozesu horren ondoren, agerian geratu da iztukuen azpian ezkutatuta zegoen polikromia, bai eta zura ere, polikromia galdua zegoen tokietan. Aspaldi gertatutako intsektu xilofagoen erasoak eragin handia izan du euskarrian.

Iztukuak kendu ondoren, berreraiki ziren bolumen txikiak ere ikus daitezke. Hartu dugun irizpidea izan da piezaren irakurgarritasuna kaltetzen ez duten formak kontserbatzea.



Hasierako egoera eta azken emaitza, iztukua kendu ondoren





Aurreko esku-hartze batean jarritako iztukua kendu aurretik eta kendu ondoren. Gotzainaren mantuaren atzealdea



JATORRIZKOAK EZ DIREN METALEZKO ELEMENTUAK KENTZEA

Euskarrian egindako berreraikuntzei eusten zieten metalezko elementuak bakarrik kendu ditugu. Igeltsuz eginak ziren berreraikuntzak eta gaur egun galduak dira.

Kendu egin ditugu herdoilduta zeudelako eta inolako funtziorik betetzen ez zutelako.

Kardinalaren buruaren xehetasuna. Aurreko esku-hartze batean sartutako iltze herdoilduak, kapelan berreraikitako bolumenari (gaur egun galdua) eusteko jarriak



*Idulkia finkatzeko prozesua.
Injekzio bidez aplikatutako erretxina akrilikoarekin.*

EUSKARRIA FINKATZEA

- **Euskarria finkatzea:** Irudiaren oinarrian pipiak jotako zura finkatu dugu Paraloid B-72 erretxina akrilikoa %5-10 Dowanolekin aplikatuta injekzio eta inpregnazio bidez. Erretxinaren kontzentrazioa handitu egiten da zuraren trinkotasun egokia lortu arte, gainsaturaziorik sortu gabe eta gainazalean zarakarrik gelditu gabe.

- **Pipiak jotako zura zigilatzea:** Zura zigilatu dugu, egindako beste jarduera guztietan bezala, ahalik eta gutxien esku hartuta. Helburua zen pipiak jotako tokietan zeuden zuloak ixtea, kentzen zaila den zikinkeria pilatu ez zedin, lotze-puntuak leuntzea eta perimetroak indartzea, finkatze-lana egin ondoren zurezko xafra meheak bakarrik geratzen direnean.



Zerrauts-kolaz finkatzeko prozesua. Hasierako egoera



Zerrauts-kolaz finkatzeko prozesua. Zerrauts-kola aplikatzen. Azken emaitza

Horretarako, zerrautsaz eta kolaz egindako oreka aplikatu dugu gainazalean, hauxe da, Vinavil® (PVA emulsio urtsua) eta pinu-zerrautsa bahetua, nogalinez tindatua. Espatulaz aplikatu dugu eta azetonaz bustitako isipuz errepasatu dugu, soberako hondarrak kentzeko.

JATORRIZKO METALEN TRATAMENDUA


Eskulturaren oinarrian edo idulkian daude metal horiak. Herdoila mekanikoki kendu dugu mikrotornu elektrikoaren laguntzarekin, metalaren pasibatu bidez, Oxino® produktuarekin, metala ondo babestuta, Paraloid B44 erretxinarekin % 10 azetonarekin, berriro herdoildu ez dadin.

ELEMENTU SOLTEAK ITSASTEA


Ama Birjinaren mantuaren muturretako tolesetan bereizita zeuden piezak kolaz itsatsi ditugu, polibinilo azeatoarekin (PVA), azkar lehortzen den Pattex® kola zuria, eta lehortzen ziren bitartean piezei sarjentaz eutsita.

BOLUMETRIA BERRERAIKITZEA

Dauden lekuetatik piezaren irakurketa oztopatzen duten zati galduak baino ez ditugu berreraiki: puttietako baten oinaren eta hankaren arteko lotura, Ama Birjinaren koroa eta idulkiaren moldura, Araldit® egur erretxina epoxidikoarekin.



Pieza soltea PVA bidez itsasteko prozesua, sarjentarekin eutsita



Geruza argizaritsua kentzeko prozesua, aire beroaren bidez

BABES-GERUZA KENTZEA

Piezaren azterketa organoleptikoak eta Cremonesik proposatutako disolbatzaile organiko neutroen disolbagarritasun-testa erabiltzeak lagundu egin digu babes-geruzaren izaera argizaritsua ikusten.

Horregatik, aire beroko “Leister” pistola eta disolbatzaile apolarak dituzten isipiak erabiltzea erabaki dugu, puzten, diluitzen eta, ondorioz, babes-geruza kentzen laguntzen baitute.

Aire beroko pistola erabat kontrolagarria da eta polikromia erabat errespetatzen du, lana errazten baitu, bai eta obran disolbatzaileen erabilera minimizatu ere.

Polikromia galdu izanagatik zura ageri den lekuetan, beroa oso eraginkorra da babes argizaritsua kentzeko, leku horietan baitaude argizari hondakin gehienak.

Lehen babes-geruza hori erabat kendu ondoren, bigarren geruza bat ageri da, karamelu-testurakoa eta kolore ilunekoa. Geruza hori guztia azetonarekin kendu dugu.

Prozesu motela izan da material filmogenoaren bi geruzak kentzea, baina oso segurua. Haren ondoren, azalean zikinkeriarik gabeko polikromia agertu da, baina karnazio belztuak ditu. Horregatik, beharrezkoa da urez garbitzea eta han eta hemen ageri diren birpintatzeak kentzea.



Argizaria-metaketa gotzainaren oinetan, eta gune hori bera argizaria kendu ondoren

UREZ GARBITZEA


Ama Birjinaren karnazioak eta puttiak bakarrik garbitu ditugu urez. Haietan, piezak jasandako suteek eragindako kedar-orbanek gain, birpintatze batzuk ere aurkitu ditugu han eta hemen.

Suak eragindako erredurei dagokienez, bi orban mota daude obran:

- **Kedar-orbanak**, pH 7ko disoluzio indargetzailearen bidez eta baliabide mekanikoen laguntzaz (bisturia eta beira-zuntzezko arkatza) kendu ditugu.
- **Erredura sakonak**, euskarriari eragiten diotenak eta kendu ezin direnak. Kasu honetan, baliabide mekanikoekin arindu besterik ez ditugu egin.




Pertsonaietako baten hankaren ur-garbitketaren xehetasuna



Birpintatzea Ama Birjinaren aurpegian.

BIRPINTATZEAK KENTZEA

Ama Birjinaren aurpegian eta putzietan egindako birpintatze txikiei dagokienez, disoluzio indargetzaileen bidez kendu ditugu. Horrekin batera, mikroskopia digitalaren laguntzarekin egiaztatu dugu ondo kendu diren eta pintura-mintza zein egoeratan dagoen.



Birpintatzearen xehetasuna, mikroskopia digitalarekin lortutako irudian

BERRINTEGRAZIO KROMATIKOA

Tailla zein kontserbazio-egoeratan dagoen ikusita, bi errealitate oso desberdin ageri baititu, beharrezkoa da berrintegrazio kromatikorako bi irizpide konbinatzea.

Alde batetik, kontserbazio-egoera onean dagoen polikromia bat dugu, eta jantzietan bakarrik galdu da zati batzuetan; izan ere, erabilitako pintura-teknikak, kasu honetan tenpera urrezko

ogiaren gainean, ondo eutsi dio suteari. Bestea, karnazioei dagokie, eta, olio tankerakoa delako, kalte handiagoak izan ditu suteetan jasandako beroaren ondorioz. Toki horietan oso belztua dago polikromia eta anpulu ugari ditu, gehienak galduak. Horregatik, agerian dago prestatze-geruza. Gainera, eremu horietan oso esku-hartze desegokia egin da aurretik; izan ere, garbitzeko



Ama Birjinaren aurpegiaren xehetasuna, garbitu ondoren eta berrintegrazio kromatikoaren ondoren



Ama Birjinak eta puttiak garbitu ondoren zuten itxura

asmoz, polikromia-geruza kendu egin dute eta agerian utzi dute prestatze-geruza.

Jantzietan polikromia galdu duten zatien berrintegrazio kromatikorako, *Coremans* Proiektuak proposatutako 0. berrintegrazio-maila aukeratu dugu. Hartan proposatu da ezer ez berrintegratzea. Euskarriaren zuraren kolorea bera da hutsunearen oinarria. Kolorea aplikatzeko, akuarela urkolorea (Winsor&Newton®) besterik ez dugu erabili hutsunearen perimetroan gelditu diren jatorrizko itzukuaren ertz zurixketan.

Hala ere, beroaren eraginez ilundutako karnazioetan, aurreko esku-hartzeetan karnazio horiek gehiegi garbitu direnez, beharrezkoa izan da kolorea erabiltzea multzoan ondo integratuta geratzeko eta ikuspegi osoa eta uniformea emateko. Pieza bernizatu ondoren egin da prozesu hori.

BERRINTEGRAZIOA BERNIZ-PIGMENTUEKIN

Bernizatze-prozesua amaitu ondoren, beharrezkoa da eskulturaren karnazio guztien polikromia doitzea. Nolanahi ere, aipamen berezia merezi du Ama Birjinaren karnazioak; izan ere, iraganean esku hartu zen hartan (gehiegi garbitu eta urratu egin zuten aurpegiaren ezkeraldea) eta ilundu egin zen beroak zuzenean eman ziolako. Hori guztia dela eta, oso zaila da behar bezala egitea irudiaren irakurketa.

Alterazio horiek zuzentzeko, berrintegrazio kromatikoa egin dugu pigmentuen eta bernizaren bidez, puntillismoaren teknika erabilia. Metodologia hori guztiz itzulgarria da, eta, amaitutakoan, obra osoaz gozatzeko aukera ematen du.

IDULKIAN EGINDAKO TRATAMENDUA

Idulkia da alterazio gehien dituen eremua, eskulturaren zatirik irisgarriena baita.

Euskarria finkatzea

Injekzio bidez finkatzea, Paraloid B-72 erretxina Dowanolean nahasia, kontzentrazio desberdinetan (% 5-10).

Pipiak jotako zura zerrauts-kolarekin zigilatzea. Pinu- zerrautsa bahetua + polibinilo azetatoa + nogalina.

Bolumentria berreraikitzea

Falta diren zati txiki batzuk baino ez ditugu berreraiki, idulkiaren egitura-lerroak mugatzen dituztenak. Araldit zur-erretxina epoxidikoa erabili dugu horretarako.

Iztukatua

Oinarrian bakarrik egin dugu, hautsa eta zikinkeria ez pilatzeko eta multzoaren irakurketa errazteko. Iztuku tradizionala erabili dugu, untxi-kolarekin eta Bolonia igeltsuarekin.

Berrintegrazio kromatikoa

Iztukatutako eremuarena akuarelarekin (Winsor&Newton®) eta txantiloien teknika erabilita.

Euskarria garbitzea (agerian dauden zuraren eremuak)

Agerian dagoen euskarria ur epelez eta baliabide mekanikoz garbitzea. Sutearen beroak eragindako orbanak argitzea.

Oso belztua zegoen babes-geruza kendu ondoren, pintura galdu duten zati txikietan nabari zen polikromia zegoela azpian.

Mikroskopioarekin egiaztatuta, bi polikromia desberdin ageri dira. Azalekoena eta denboran berriena zuria, eta lehenagoko beste bat tonu urdinetan.

Oinarriko birpolikromia kentzea

Babes-geruza kendu ondoren, purpurina-geruza bat geratu da agerian geruza zurixka baten gainean, azpiko polikromia ezkututzen duena.

Azetona erabili dugu purpurina-geruza kentzeko, eta Solvent Gel alkohol bentzilikoa, berriz, geruza zurixka kentzeko.

Pintura- eta purpurina-geruza kendu ondoren, azpiko polikromia ageri da, marmolizatu urdin eta urre-koloreekin, ur-pinturaz margotua.



Mikroskopio digitalarekin lortutako idulkiaren irudia. Bertan bereizten da ageriko polikromia zuria, eta beste bat urdina azpiko geruzan

Berrintegrazio kromatikoa

Akuarela urkolorez tindatu ditugu jatorrizko iztuku hondarrak zur kolorez, obra osoan erabili dugun berrintegrazio kromatikoaren irizpide bera erabilita.



AZKEN BABESA

REGALREZ® 1094 erabiltzea erabaki dugu. Pisu molekular txikiko erretxina alifatikoa da, zahartzearen aurkako erresistentzia handia du eta propietate optiko ezin hobeak, erretxina naturalaren antzekoak. Azken berniz gisa oso egokia da taula eta oihal gaineko pinturetarako.

Brotxaz bernizatu dugu Regal Varnish Gloss, Regal Varnish Mate eta petrolio-esentziarekin (1:1:1).

Azken bernizek honako helburu hauek dituzte:

- Pinturak eraginkortasunez babestea hauts koipetsuen, keen, urraduren eta eraso atmosferikoen aurka.
- Isolamendu-geruza izatea etorkizuneko berrintegrazio kromatikoko esku-hartzeen aurrean.
- Pintura-geruzaren osagaiak zahartu izanagatik urritu edo aldatu diren kalitate kromatikoak indartzea. Bernizek koloreak saturatzeko gaitasuna dutelako gertatzen da hori.
- Akuarela teknikaz egindako berrintegrazio kromatikoak babestea.



Idulkiaren babes-geruza, oso belztua, kentzeko prozesua



Idulkiaren birpintatzea kentzeko prozesua. Marmolizatu urdina eta urre leundua ageri dira

AZKEN ARGAZKIAK



Aurrealdea



Alboa



Atzealdea



Alboa

XEHETASUNEN ARGAZKIAK



Eskulturaren goiko aldearen xehetasuna, Ama Birjina eta bi puttiak zaharberritu aurretik

ZAHARBERRITZEAREN AURRETIK



Atal bera, esku-hartzea amaitu ondoren



ZAHARBERRITZEAREN AURRETIK



ZAHARBERRITZEAREN ONDOREN



Pertsonaia "zaurituaren" xehetasuna, kontserbazio-egoera zaharberritu aurretik



Mismo personaje después de la intervención




ZAHARBERRITZEAREN AURRETIK



ZAHARBERRITZEAREN ONDOREN



ZAHARBERRITZEAREN AURRETIK





Conjunto de personajes antes de la intervención

ZAHARBERRITZEAREN AURRETIK



Conjunto de personajes, tras la restauración



Peana, anverso y reverso, antes de la restauración

ZAHARBERRITZEAREN AURRETIK



Peana, anverso y reverso, tras la intervención

BIBLIOGRAFIA

LUCÍA GOMEZ-CHACÓN, D. (2014)

<https://www.ucm.es/bdiconografiamedieval/virgen-de-misericordia>.

2022ko urtarrilaren 22an berreskuratua, <https://www.ucm.es/bdiconografiamedieval/virgen-de-misericordia> helbidean

VVAA. (2021eko urriaren 18a). wikipedia

Wikipediatik eskuratua: https://es.m.wikipedia.org/wiki/Virgen_de_la_Merced

VVAA. (2021eko urriaren 18a). wikipedia

Wikipediatik eskuratua: https://es.m.wikipedia.org/wiki/Archivo:Madonna_della_Misericordia.JPG

VVAA. (2017). Proyecto COREMANS

Criterios de intervención en retablos y escultura policromada / COREMANS Project.

Intervention criteria for altarpieces and polychrome sculpture. Madril: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

ESKU-HARTZEAREN ETA IKERKETAREN DATUAK

ZAHARBERRITZEA

Artez Zaharberritzea / Restauración

TALDE TEKNIKOA

Aida Payá Montesinos

Maite Fernández Azcona

IKERKETA

David Zapirain. Ereiten Kultur Zerbitzuak

STM

San Telmo Museoa

SOROSPEN ETA BIDAIA ONEKO AMA BIRJINIA

IKERKETA ETA
ZAHARBERRITZEA

David Zapirain. Ereiten Kultur Zerbitzuak
Artez Zaharberritzea / Restauración

Argitaratzailea

San Telmo Museoa, Donostia Kultura

Diseinua eta maketazioa

Ytantos

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia
T (00 34) 943 48 15 80

www.santelmomuseoa.eus
[@santelmomuseoa](https://www.instagram.com/santelmomuseoa)



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostiakultura